

2024KO APIRILAREN 2EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita bosta

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hogeita lau.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko hostak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA /

IU-ALIANZA VERDE).

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. 2024-02-29ko aktaren onespena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- **BEASAINGO KIROL ELKARTEAREKIN HITZARMENA.** 2024KIBO0005

Ezagutzera eman da Herritarrak Batzordearen proposamena, hau da, Beasaingo Udalaren eta Beasain Kirol elkartearen arteko ondorengo lankidetzeta hitzarmena sinatzea:

“BEASAINGO UDALAREN ETA BEASAIN KIROL ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, FUTBOL ZELAIK KUDEATZEKO ETA FUTBOL FEDERATUA GARATZEKO

Beasainen, 2024ko apirilak xx

BILDURIK

Alde batetik, Leire Artola Ugalde anderea, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta. Hitzarmen hau sinatzeko Mariola Pascual Paredes andereak, Herritarrak arloko zinegotzi delegatuak, gaitasun osoarekin esku hartzen du, Alkateak 2023-7-3an emandako 2023/1116 Ebazpenak baimenduta.

Bestalde, BEASAIN KIROL ELKARTEA, G20193728 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Loinaz Futbol Zelaian, Igartza Oleta, 1 helbidean, egintza honetan Kepa Lasa Zaldia jauna jaunak/andreak ordezkaturak, adinez nagusia dena, helburu hauetarako helbidea Kale Nagusia 21, 5 B duena eta ordezkariak 2017ko ekainaren 29 datako Batzar Orokorraren bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

I) Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.

II) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.

III) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

IV) Alkateak 2022-12-13an emandako Ebazpenak (2022/1979), 2023-2025erako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Bertan ondorengo helburu estrategikoa aurreikusten da: JARDUERA FISIKOA ETA AISIALDIA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA. Helburu hau isladatzen da 5. Lerroan eta 5.1 jardueran.

V) Beasaingo Udaleko 2024ko aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da Beasain Kirol Elkartearen alde, futbolaren sustapenaren eta futbol zelaien kudeaketaren helburuarekin.

VI) Beasain Kirol Elkartearen estatutuetan azaltzen den helburu soziala ondorengoa da: futbolaren sustapena eta praktika (1 artikulua)

VII) Helburu horiek bat datoz apirilaren 2ko 7/85 Legearen, 25.2l) artikulua eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikulua Udalari ematen dien eskumenekin.

VIII) Udalaren asmoa da futbol federatua sustatzea eta eraikita dauden kirol ekipamenduei etekina ateratzea. Beasainen Beasain Kirol Elkartea de futbol federatuaz arduratzen dena eta futbol federatua garatzeko Udalak ezinbestekoa ikusten du azpiegituren erabilpen lagapena egitea helburu hori betetzeko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Beasain Kirol Elkarteari 129.000,00 euroko diru laguntza nominatiboa ematea, jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

-Futbol zelaien erabilpenaren kudeaketa.

-Futbol federatuaren garapena.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Alde batetik, Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea Beasain Kirol Elkartearen alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen bostgarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

Bestalde, Udalaren izenean joango diren futbol zelaietako kontratazioak eta hornikuntzak ordaintzea:

- Igogailuaren mantenua.

- Elektrizitate hornikuntzak.

- Gasaren hornikuntzak.
- Ura eta estolderia.
- Sutean aurkako instalazioen mantenua.
- Galderen mantenua.

Elkartearen izenean joango dira bestelako kontratazioak, erosketak eta hornikuntzak

Beasain Kirol Elkartearen betebeharrak dira:

1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3) Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen

erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerek edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.

6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoa barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoa eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

8) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.

10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.

11) Elkarteak euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan.

Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

12) Elkarteak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea onarzten duena) bai elkartearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

13) *Kirol Sariak: Udalaren interesa izanik, Beasainen edo Beasaingo pertsona eta entitateek kirol alorrean egindako lan publikoki aitortzea, Elkarteak inizatiba horretan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartu du eta horretarako pertsona arduraduna izendatuko du. Izangai edo izangai batzuk Elkarteak aurkeztuko ditu kategoria bakoitzeko ezartzen diren sarietarako, adieraziz horiek lortutako merezimenduak zeintzuk diren.*

- 14) *Hauek dira Udalaren izenean joango diren futbol zelaietako kontratazioak eta hornikuntzak:*
- *Igogailuaren mantenua.*
 - *Elektrizitate hornikuntzak.*
 - *Gasaren hornikuntzak.*
 - *Ura eta estolderia.*
 - *Sutean aurkako instalazioen mantenua.*
 - *Galderen mantenua.*

HIRUGARRENA. FUTBOL ZELAIEN ERABILPENAREN KUDEAKETA

Loinaz eta Igartzako Futbol Zelaien erabilpenaren kudeaketa, ondorengo xede eta eginkizunen mende egongo da:

- Sarreraren eta erabilpenaren kudeaketa.*
- Kontrola, mantentze lanak, kontserbazioa eta garbiketa.*
- Erosketak.*
- Zelaien mantenua.*
- Edaritegi eta Kafetegi zerbitzua: Loinaz.*
- Publizitate ustiapena.*

Beasaingo ikastetxeen eta Goierri Gorri kirol klubaren erabilpena doan izango da.

Elkartek egoera onean zaindu eta gorde beharko ditu futbol zelaiak dituzten ondasunak eta instalazioak eta bere kontura konpondu beharko ditu beharrezkoa denean, hartzen dituen baldintza eta kalitate berberetan gordez. Horretarako instalazioen eta ekipamenduen mantentze eta iraunarazte egitarau bereziak ezarriko dira.

Derrigorrezkoa izango da instalazio eta ekipamendu guztiak funtzionamendu, iraupen eta garbitasun egoera onean edukitzea, eta elkartearen kargura izango dira erabilpenaren ondorioz egin beharreko konponketak eta lanak. Elkartearen kontura izango dira egun indarrean den legeriaren arabera instalazioei egin beharreko ikuskapenak.

Lankidetzeta-hitzarmen honetatik kanpo daude obra handiak, hau da, erabilpenaren ondorioz mantentzen ohikoak ez direnak.

Derrigorrezkoa izango da instalazio guztiak behar bezalako garbitasun eta osasun baldintza onetan edukitzea. Horretarako, erabiliko diren bakterioak akabatzeke jeneroak, ingurumena errespetatzen dutenak izan beharko dute, bidezkoak diren sanitate erregistroak izan beharko dituzte eta erabiltzaileei garbitasun baldintza egokiak bermatu beharko dizkiete.

Elkartea izango da futbol zelaietako azpiegituren, eraikinen, instalazioen, altzarien eta ekipamendu guztien erabilpen eta funtzionamendu zuzen eta egokiaren arduradun bakarra.

Beasaingo Udalaren baimenik gabe, ez da inolako obrarik egiterik izango, ez eta ekipamenduak aldatzerik ere.

Segurtasuna. Elkarteari dagokio Loinaz eta Igartzako Futbol Zelaietan Legeak agindutako segurtasun neurri guztiak hartzea eta ikusle eta erabiltzaileen segurtasuna babestea. Ezinbestekoa da segurtasun neurriak egunean izatea. Zentzu honetan Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak zehaztutakoa betetzeko konpromezua hartzen du elkarteak.

Instalazioen erabilpena. Futbol zelaietarako sarrera eta haien erabilpena, elkarteak kudeatuko ditu. Instalazio hauek bereziki futbolerako dira, baita puntualki bestelako kirolen, ariketa fisikoen eta gorputz-hezkuntzaren sustapenerako.

Instalazioak ondorengo baldintzak betez erabiliko dira:

-Ikastetxeak. Beasaingo ikastetxeek, ordutegi jakin baten barruan, instalazioak gorputz-hezkuntzarako erabiltzeko izango dute eta doan izan ere. Eskola-orduetan, belar artifizialdun lgartzako futbol zelaia Beasaingo ikastetxeek gorputz- hezkuntzako eskolak emateko izendatuta egongo da. Sartzeko giltza Antzizar Kiroldegian izango da.

-Igartzako Futbol Zelaiaren erreserbak programatzean, astean zehar arratsaldeetan (16:30etik 18:00etara) eta larunbat goizetan (09:00etatik 13:00etara) ordutegiko tarte bat Eskola-Kiroletan erabiltzeko gordeko da. Ikastetxeei emandako baimenak, Beasaingo Udalaren irizpide teknikoaren arabera izango dira.

-Kirol klubez eta kirol elkarteak. Legez eraturako kirol taldeak eta kirol federazioak bakarrik izango dira Kirol federatuaren baliozko ordezkari bakarrak.

-Erreserben programazioan, ordutegi zatiak ezarri eta gordeko dira belar artifizialdun futbol zelaietan (18:00etatik 22:00etara) kirol federatukoek erabiltzeko. Klubei emandako baimenak, Beasaingo Udalaren irizpide teknikoaren arabera izango dira.

Beasaingo Udalak berari egoki iruditzen zaizkion aparteko jardueretarako erabili ahal izango dituzte instalazioak. Zentzu horretan, 15 egun naturalez aurretik, klubari jakinarazi egingo diote ordutegiak eta jarduerak egokitu ahal izateko.

Tabernak.

-Loinazko taberna-kafetegiko zerbitzua: BKE arduratuko da.

-Igartzako taberna-kafetegiko zerbitzua, aldamenen dauden komunen garbiketa barne: Udalak, herri-jabariko ondasuna denez, esleipenerako lizitazio publikoa egingo du. BKE klubak kontratistari une oro jakinaraziko dio instalazioan burutzen diren jardueren berri.

Taberna-kafetegiko zerbitzua behartuta dago horri buruz aplikatu beharreko legeetan eta araudietan xedatutakoa betetzera.

Publizitatearen ustiapena

-Publizitate kudeaketak honako ustiapen hauek ditu:

A- Publizitate egonkor iraunkorra Instalazioetan jarritako errotulu eta banderen bitartez.

B-Iraunkorra ez den publizitate egonkorra hainbat gauza eta euskarrien bitartez. Publizitate mezua, zoruan bermatu eta iraunkorrak ez diren elementuen bidez agertuko da, hala nola publizitate trianguluen edo erakusteko euskarrien bitartez.

-Publizitate egonkor iraunkorra egiteko, osotasunezko irtenbideak proposatu behar dira instalazioen irudia hobetzeko karteldegiko muntaketak eginez edota bandera guneak jarritz.

-Kokaleku bakoitzean baimenduko den publizitate azalera, kokapen leku bakoitzari dagokion tokiak duen eginkizunak definituta egongo da. Azalera hori libreki ustiatu ahal izango du klubak.

-Derrigorrezkoa izango da doako erakunde guneak gordetzea, herri erakundeek eragindako jarduerak iragartzeko. Publizitate ustiapenean Udalaren esku libre eta gordeta geldituko da zati bat. Udalak azalera hori, komenigarriak iruditzen zaizkion oharrak, iragarkiak edota erakunde arloko kanpainak iragartzeko erabili ahal izango du, edota bestela, irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteei laga ahal izango die beren jardueren berri emateko.

-Klubak obligazioa izango du publizitate euskarriak, jarrita dauden denbora guztian zehar, segurtasun eta kontserbatze egoera onean mantentzeko. Publizitate jardueraren egitura eta euskarri diren elementuak, iraultzeko edo erortzeko arriskurik gabe eta behar adinako erresistentzia eta segurtasunarekin jarriak izan behar dute.

-Publizitatea baimenduko da, haien edukia garatzen ari den jardueraren establezimendu izena, titularraren baltzu izena, merkataritza jarduerako izena, profesionalaren izena edota beste motaren bateko izena edota izen horiekin zuzenean edo zeharka zerikusia duenean.

-Publizitatea: euskara hutsez egingo da.

-Publizitate ustiapena salbuetsita gelditzen da Beasaingo Udalak berak zuzenean baimendutako aparteko jardueretarako eta horiek gauzatzen diren bitartean antolatzailearen onerako den ekitaldi horietako publizitate berezia erabili ahal izango da.

LAUGARRENA. FUTBOL FEDERATUAREN GARAPENA

Beasain Kirol Elkarteak da herrian futbol arautua praktikatzeko oinarrizko entitatea eta herritarrei futbol federatuan egiteko aukera eskaintzeko erantzukizuna berak duela, prestakuntza, antolamendu eta administrazio alderdiei dagokienean.

S. D. Beasain Kirol Elkarteak herrian futbol jarduera sustatu eta garatzeko konpromezua hartzen du eta horretarako behar direnak zuzentzeko. Guzti horretarako koordinatzaile orokor bat izendatuko du, burutuko diren ekintzak antolatzeko eta aurrera eramateko beharko diren adina futboleko teknikari.

Elkarteak ikastetxeekin lankidetzan jardungo da eskola-kiroleko futbol jarduera garatzeko. Lankidetzak hau elkarteak ikastetxeekin eta Udalarekin adostuko du, nola gauzatu ikusteko, eskola kirolarekin zertan eta zenbaterainoko lotura izango duen kontuan hartuz, ez bakarrik antolamenduari eta jardueren ikuspuntutik, baizik eta eskola kirolaren kontzeptuzko planteamenduekin atxikituz. Nolanahi ere, elkartearen lankidetzak ez du inola ere, eskola-kirolarekiko herriko ikastetxeen erabaki gaitasuna gutxituko.

-Klubak kirolari benjamin zein alebinei eskainitako edozein ekintza (Futbol Eskola) eskola kiroleko programan egiten diren ekintzen osagarri izango da; beraz, Futbol Eskolako partaideek eskola kirolean izena emanda izan beharko dute.

-Klubak antolatutako lehiaketan zein entrenamenduen eta eskola kirola programaren egutegien eta ordutegien artean ez da baterakidetasunik izango; klubaren programak eskola kirolari egokituko zaizkio.

-Beasaingo eskola kiroleko egiturak klubak egiten dituen ekintzetarako beharrezkoa den eskola-lizentziak bideratuko ditu.

S.D. Beasain Kirol Elkarteak BEASAIN izena kirolarekin bat kaleratzeko konpromezua hartzen du, izena zabalduz bere esku dago neurrian. Zentzu honetan:

-Taldea guztiek beraien ekipamenduetan BEASAIN izena eramango dute argi eta garbi ikusten dela.

-Loinaz eta Igartzako Futbol Zelaian Beasaingo Udalaren irudiak lehentasuneko tokian izango dira.

BOSTGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, Beasain Kirol Elkartearen aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 129.000,00 euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:

- 80.000 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, edozein ordainketa egin aurretik, azken agiriek indarra galtzen badu Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

- Bigarren ordainketa gisa 30.000 €, aurrez 2024ko ekainaren 30 bitartean izandako gastuen justifikazioa kontzeptu eta era honetan egin ondoren:

- Instalazioen kudeaketaren eta burututako jardueraren laburpen txostena.
- Ondorengo gastuaren justifikazioa:
 1. Futbol zelaien erabilpenaren kudeaketa, Excel artxiboan gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.
 2. 2023-2024 denboraldiko kirol jarduera Excel artxiboan gastuen zerrenda sailkatu bat konparatuz 2022-2023 eta 2023-2024 denboraldien kontzeptuak.

Bi kasuetan horretarako dokumentua gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du eta hauekin batera aurkeztu behar dira fakturen fotokopiak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak eta horrela badagokio ordainagiriak.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizuneko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.
- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren alea.

- Hirugarren ordainketa gisa 19.000€, aurrez 2024ko uztailaren 1a eta urriaren 31 bitartean izandako gastuen justifikazioa era honetan aurkeztu ondoren:

- Instalazioen kudeaketaren txostena.
- Ondorengo gastuaren justifikazioa:
 1. Futbol zelaien erabilpenaren kudeaketa, Excel artxiboan gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

Dokumentua gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du eta honekin batera aurkeztu behar dira fakturen fotokopiak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak eta horrela badagokio ordainagiriak.

 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizuneko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.

Hitzarmenaren xede den diru laguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2024 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0261.481.341.00.01 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

SEIGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira futbol federatuaren garapena 2023/2024 denboraldian 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean eta futbol zelaien kudeaketa 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekareruak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetakoko gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

ZAZPIGARRENA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

ZORTZIGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

- 2025eko urtarrilaren 15erako, 2024ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra izandako gastuen justifikazioa era honetan aurkeztu beharko da:

- Instalazioen kudeaketaren txostena.
- Ondorengo gastuaren justifikazioa:

1. Futbol zelaien erabilpenaren kudeaketa, Excel artxiboan gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

Dokumentua gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du eta honekin batera aurkeztu behar dira fakturen fotokopiak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak eta horrela badagokio ordainagiriak.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizuneko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalarari jakinaraziko lioketela.

2. Azkeneko memoria honetan ondorengo kontuan hartu beharko da.

Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak obra-kontratuen kasuan 39.999,00 euroko (BEZik gabe) eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuenekoan 14.999,00 eurokoa (BEZik gabe), klubak gutxienez hiru hornitzaile eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak

emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo diru- laguntza eman aurretik gastua egina badago.

Izan diren eskaintzak diru-laguntzaren zurigarrietan edo eskaeran bertan aurkeztu behar dira eta aukeraketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideak jarraitu behar ditu. Esleipena proposamen ekonomiko abantailatsuenari ez badagokio, hau espreski aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da.

3. Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

4.- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

BEDERATZIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetik ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

HAMARGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2025ko urtarrilaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzak onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

HAMABIGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta Beasain Kirol Elkartek 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

HAMAHIRUGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. Artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2025ko urtarrilaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

HAMALAU GARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honi ondorengoak aplikatuko zaizkio:

- Udalaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa, 2023-2025 aldirakoa, 2022ko abenduaren 13ko 2022/1979 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko diru laguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

HAMABOSTARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

Beasain Kirol Elkartek hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

Beasain Kirol Elkartek, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMASEIGARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA

Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

HAMAZAZPIGARRENA. GATAZKAK EBAZTEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu dute.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldearen ordezkariak, esan du, ondorengo esaldiaren, “*publizitate guzti guztia euskaraz bakarrik egingo da*”, edukiaren ez dagoela ados et horren ondorioz abstenitu egingo dela.

Alkate andreak (EAJ-PNV), ihardetsi du esanez begiraturako dela beste hitzarmenetan nola jartzen den udal ordenantzak zer dioen eta esaldi hori egokitu behar bada egokituko dela.

Hasier Agirre Elkorberezibar, Beasaingo EH Bilduren ordezkariak esan du, euskara lehenetsi egin beharko litzatekeela.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz publizitatearena begiratzearen baitan, gehiengo osoarekin onartu da transkribatu den Beasaingo Udala eta Beasaingo Kirol Elkartearen arteko hitzarmena.

b.- Kontratazioa:

- HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUA EMATEARI BURUZKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA LUZATZEA. 2021ESEP0002

Ezagutzera eman da Herritarrak Batzordearen proposamena, hau da, hizkuntza errefortzu zebitzuaren kontratua luzatzea:

AURREKARIAK

1. *Dagokion espedientea tramitatu ondoren, 2021eko uztailaren 9an sinatu zuten Beasaingo Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak Beasainen hizkuntza errefortzu zerbitzua emateko kontratua bi urtetarako, hau da, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako.*
2. *2021eko uztailaren 9an sinatutako kontratu administratiboak honakoa dio:*
“Bigarren.- Egikaritze epea 2 urtekoa izango da eta urtebeteko beste bi luzapen aukera egongo da. Zerbitzua ematen hasteko eguna hau izango da: 2021eko irailaren 13a.
Zerbitzua astelehenetik ostegunera emango da 2021eko irailaren 13tik 2022ko ekainaren 30era (biak barne) eta 2022ko irailaren 12tik 2023ko ekainaren 30era (biak barne). Egutegi horren barne 120 egun izango dira lektiboak eta hartzaile bakoitzak astean 3 orduko hizkuntza errefortzua jasoko du.”
3. *Kontratuaren iraupen aldia amaituta, eta zerbitzuaren funtzionamenduaren egokitasuna kontuan izanda, 2023ko apirilaren 4ko Gobernu Batzordeak kontratua beste urte betez luzatzeko erabakia hartu zuen.*
4. *2023ko ekainaren 7an sinatu zuten bi aldeek kontratuaren urte beteko lehenengo luzapena.*
5. *Kontratuaren epe-muga iristear dagoenez, Kultura eta euskara teknikariak 2024ko apirilaren 5ean kontratua bigarren aldiz luzatzearen aldeko txostena egin du.*

Beraz, Herritarren Batzordeak, kontuan izanik, luzapenak bi aldeen arteko espresuki hartutako erabakia eskatzen duela, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ttakun Kultur Elkartearekin 2021eko uztailaren 9an sinatutako kontratua luzatzea, Beasainen 4 eta 12 urte bitarteko haurrei hizkuntza errefortzu zerbitzua emateko.

Bigarren. Luzapenaren epea ikasturte batekoa izango da, hau da, 2024ko irailaren 1etik 2025eko ekainaren 30a arte.

Hirugarren. Kontratuaren prezioa 2023-2024 ikasturtekoa bera izango da, hau da, 58.933,68 €/urteko € + BEZa.

Laugarren. Alkateari baimena ematea, kontratuaren luzapena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkorberezibar, Beasaingo EH Bilduren ordezkariak jaunak: “Zerbitzua berriro irailean hasiko da eta hizkuntza errefortzuari begira uztailean eta abuztuan hutsunea geratzen da. Batzordean ere komentatu zen agian beste formula batzuk ere abian jarriko beharko liriatekeela, adibidez, gaztelekua.

Alkatea andreak (EAJ-PNV) esan du horretaz jabetuta eta hutsune hori betetzeko udalekuak antolatzen direla, baina horrek ez duela esan nahi beste modu batetara ere bermatu daitekeenik errefortzu horren denboraldiko etetea.

Besterik gabe bozketa egin da eta aho batez onartu da kontratua luzatzea aipatu den terminoetan, bide batez gogoraraziz kontratu-luzapen hau gauzatu ondoren ez dela aukerarik egongo besterik egiteko.

- GIZARTE-PREMIAK ETA ARRISKUAK ANTZEMATEKO ETA ETXEKO SUTEAK AURREIKUSTEKO ZERBITZUA ESLEITZEA. 2023BIBO0013

Ezagutzera eman da aipatutako zerbitzua esleitzeko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“1.- 2024-01-25. Gobernu Batzordeak erabaki zuen aipatutako zerbitzua prozedura irekia eta arrunta bidez lizitatzea, eta horretarako, agiri administratibo eta teknikoak onartu zituen.

2.- 2024-01-26. Deialdia kontrataziorako plataforman argitaratu zen eta 2024-02-08an amaitzen zen eskaintzak aurkezteko epean, lizitaziora ondorengo enpresa aurkeztu zen:

IFK: B95480877

Sozietate-izena: ATIEMPO SERVICIOS DE PREVENCIÓN, S.L.

Erregistro-data: 2024/02/07 18:59

3.- 2024-02-12. A artxibo elektronikoaren irekiera. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta ero, ondorengo egiatzatu da:

- EKAB aurkeztu du, sinatuta eta data jarrita. Bertan kaudimen ekonomikoa aitortzen da, eta kaudimen teknikoari dagokionez, izaera bereko edo antzeko lanen zerrenda ere aitortu du.

- Ez du erantzukizun zibileko aseguruaren zenbatekoa aitortu du.

- 3. Eranskina aurkeztu du (giza-baliabide eta baliabide materialen Konpromisoa). Lehenengo artean identifikatzen ditu zerbitzuari atxikitako langileak, eta aurkeztzen ditu ezaugarrien taulako 13. atalean adierazitako titulazioa.

- Ez du izendatzen koordinatzaile teknikoa edo arduraduna Udalarekin harremanetarako. Aurkeztutako eskaintza ontzat ematen bada, esango zaio izendatzeko behin betiko esleipena egiteko fidantza eta bestelako dokumentazioa (zerga betebeharreran eta gizarte segurantzarekikoan eguneratuta egotearen agiria eta erantzukizun zibileko aseguruaren poliza), errekeritzen zaionean.

4.- Horren ondorioz, onartu egin zaio lizitazioan parte hartzea.

5.- 2024-02-15. B artxibo elektronikoaren irekiera burutu zen (judizio bidez baloratuko diren esleipen-irizpideak).

Lizitatuak aurkeztutako dokumentazioa zerbitzu teknikoei pasa zitzaizkien txostenak emateko. Txosten hori 2023-11-17ko datarekin eman da (9. atala).

Proposamen teknikoak aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiko kideak diren Gizarte Ongizate azpisaileko arduradunak eta Gizarte Ongizate azpisaileko gizarte langileak 2024-02-20an, balorazio-txostena eman zuten. Mahaiko gainerako kideek aztertu zuten, eta oniritzia eman zioten.

Txostenaren edukia Kontratazio Mahaia B aktari atxiki zitzaion. Lizitatuak lortutako balorazioa 43 puntukoa izan da.

Horrez gain Lurralde arloko koordinatzaileak ere txostena eman zuen enpresak eskaintako sudektagailuen baldintza teknikoei buruz eta adierazi zuen eskaintako sudektagailuek baldintza plegu teknikoetan zehaztutako ezaugarriak betetzen dituztela.

Aipatu diren txostenak kontratazio-plataforman argitaratu ziren.

6.- Fase honetan lizitatuak formulen bidez baloratu ezin diren irizpideetarako ezarritako gehieneko puntuazioaren (50 puntu), % 50 lortu zuenez, 2024-02-29an C artxibo elektronikoa ireki zen (automatikoki baloratzen diren irizpideak, guztira 50 puntuekin):

- Eskaintza ekonomikoa (2. Eranskina) 50 puntu.

Lizitazio prezioa:

- Etxebizitza berriak (altak): Gizarte-premiak eta arriskuak antzemateko eta etxeko suteak aurreikusteko zerbitzua: 130,88€/exebizitzako +BEZ.

- Zerbitzua dagoeneko duten etxebizitzak: Gizarte premiak eta arriskuak eta suteen prebentzioa eguneratzea: 16,36€/txosteneko.

- Dagoeneko instalatuta dauden ke-detektagailuak mantentzea: 13,09€/ detektagailu bakoitzeko.

7.- C artxibo elektronikoa ireki ondoren, enpresa lizitatzailleak honako hau eskaini dute:

- Etxebizitza berriak (altak): Gizarte-premiak eta arriskuak antzemateko eta etxeko suteak aurreikusteko zerbitzua: 127€/exebizitzako + 26,67 (BEZ).

- Zerbitzua dagoeneko duten etxebizitzak: Gizarte premiak eta arriskuak eta suteen prebentzioa eguneratzea: 15€/txosteneko + 3,15 (BEZ).

- Dagoeneko instalatuta dauden ke-detektagailuak mantentzea: 13€/ detektagailu bakoitzeko + 2,73 (BEZ).

Guztira lortutako puntuazioa honako hau da:

- Memoria: 43
- Etxebizitza berriak (altak): 0,99
- Zerbitzua dagoeneko duten etxebizitzak: 2,77
- Dagoeneko instalatuta dauden ke-detektagailuak mantentzea: 0,23

GUZTIRA: 46,99 puntu.

Ondorioz, kontratazio-mahaiak honako akordio-proposamen hau egin dio kontratazio-organoari (Gobernu Batzordea).

Lehenik. Gizarte-premiak eta arriskuak antzemateko eta etxeko suteak aurreikusteko zerbitzua ematea, ATTEMPO SERVICIOS DE PREVENCIÓN, S.L.ri esleitzea.

Bigarrena. Esleipena baldintza-pleguen (administratiboa eta teknikoa) eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Hirugarrena. Esleipenaren prezioa:

- Etxebizitza berriak (altak): Gizarte-premiak eta arriskuak antzemateko eta etxeko suteak aurreikusteko zerbitzua: 127€/exebizitzako + 26,67 (BEZ) = 153,67 €.

- Zerbitzua dagoeneko duten etxebizitzak: Gizarte premiak eta arriskuak eta suteen prebentzioa eguneratzea: 15€/txosteneko + 3,15 (BEZ) = 18,15 €.

- Dagoeneko instalatuta dauden ke-detektagailuak mantentzea: 13€/ detektagailu bakoitzeko + 2,73 (BEZ) = 15,73 €.

Lauugarrena. Gauzatzeko epea: Lau urte, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena. Berme-epea: Sei hilabete zerbitzuaren errezeptzioa egiten denetik

Seigarrena. Gizarte Ongizate azpisaileko arduraduna izendatzen da kontratuaren arduradun.

Zortzigarrena. Enpresa esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezala:

1. Behin betiko fidantza: 3.599,06 €

2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.

3. Lanbide-arriskuengatik kalte-ordainen aseguru-poliza, gutxienez 300.000,00 eurokoa.

4. Koordinatzailea izendapena eta hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izatearen agiria.

Bederatzigarrena. Fidantza eta gainerako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da (horretarako baimena Alkate andreaki ematen zaio) eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da Kontratazio Mahaiaren proposamena.

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- Kontratazioa:

- BEASAINGO UDALERRIAN IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUA KONTROLATZEKO ZERBITZUA. 2024UDBO0023

Ezagutzera eman da Lurralde Batzordearen proposamena, hain zuzen ere, aipatutako zerbitzua kontratatzeke lizitazioaren ezaugarriei buruz eta adierazi da Plenoan tratatuko den TAOko ordenantzaren aldaketa onartzeari baldintzatuta dagoela kontratazio honen onespena, 2025eko urtarrilaren 1etik hasiko den zerbitzu berria ordenantza horretan aratu eta oinarritzen delako :

“1.- *Prozedura: irekia. Lizitazio elektronikoa.*

2.- *Izapidetzea: arrunta eta harmonizatua*

3.- *Lizitazio prezioa: 299.313,51 € BEZ gabe*

4.- *Egikaritze epea:*

Lau urte, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zerbitzua 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da martxan. Kudeaketa-sistema zentralizatuak erabat instalatuta egon beharko du data hori baino lehen.

Instalatu ondoren, TAO zerbitzua martxan jartzeko, HASIERAKO AKTA formalizatuko da, eta alkateak, kontratuaren arduradun teknikoak eta enpresa esleipendunaren ordezkariak sinatuko dute.

2024ko irailaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte, kontratistak egungo Trafiko eta Aparkamenduko Udal Ordenantzaren arabera emango du zerbitzua (GAO, 2022ko ekainaren 7koa, 107. zk.), eta ordenantza hori 2024ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

5.- *Luzatzeko aukera. Ez*

6.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzailereen jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 509.208,47 € izango da gutxienez. Zenbateko hori 87.3.a artikulua 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.

7.- *Kaudimen teknikoak:*

a) *Azken hiru urteetan zehar egindako lan eta zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, kontratu honen xedea osatzen duten zerbitzu edo lanen antzekoak. Gutxienez 237.630,62 €-ko zenbatekora (kontratuaren urteko batez bestekoaren % 70) iritsi beharko du zenbatekoak urterik onenean, eta behar bezala azalduko dira zenbatekoak, datak eta lan edo zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua.*

Zerbitzu bat kontratuaren xedea den izaera bereko edo antzekoa den zehazteko, ezaugarrien koadro honetako 2. atalean adierazitako CPV koderako jo beharko da.

b) *Diziplina anitzeko profesionalen talde tekniko bat izatea, enpresan integratuak edo ez, eta talde horretan honako hauek egongo dira gutxienez:*

- *Zerbitziburua. Lanen zuzendaritza bere gain hartuko du, eta lanaldiaren ehuneko hogeita bostean kontratu hau gauzatzeari atxikita egongo da, eskatutako titulazio espezifikorik gabe. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Europako Erreferentzia Esparruko B2 ahozko gaitasun-maila eskatuko zaio.*
- *Zonako ikuskatzaile bat, lanaldi erdikoa, eskatutako titulazio espezifikorik gabea. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila eskatuko zaio.*
- *Administrazio-buru bat, lanaldi erdikoa, Batxilergoko, bigarren mailako Lanbide Heziketako edo titulu baliokideko tituluduna. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila eskatuko zaio.*
- *Zonako kontrolatzaileak, eskatutako titulazio espezifikorik ez dutenak. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Europako Erreferentzia Esparruko B2 ahozko gaitasun-maila eskatuko zaio.*

c) *Gainera, pertsona bat izendatuko da udalaren aurrean kontratistaren ordezkari gisa jarduteko, eta izendapen hori zerbitzuburuari gain egin ahalko zaio.*

8.- *Adjudikazio irizpideak:*

- *Automatikoki baloratzen ez direnak: Memoria Teknikoa: 35 puntu.*
 - *Giza baliabideak eta zerbitzuaren arkitektura (10)*
 - *Ordaintzeko proposatutako APP-a (10)*
 - *Mantenu plana (10)*
 - *Parkimetroak kokatzeko proposamena (5)*
- *Automatikoki baloratzen direnak: 65 puntu*
 - *Eskaintza ekonomikoa (40)*
 - *Hobekuntzak (20)*
 - *Matxuren aurrean erantzuna (5)*

9.- *Aurkezteko epea, ordua eta lekua: Hogeita hamar egun naturalak, 23,55arte. Lizitazio iragarkia Europa Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik kontaktzen hasita.*

10.- *Subrogatu beharreko pertsona (2 pertsona). Ikus baldintza pleguaren 4. artikulua.*

11.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

12.- *Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*

13.- *Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:*

Langileen ordezkapenak ondorengo langileen bidez egingo dira lehentasunez: laneratzeko zailtasunak dituzten langileak, tokiko emakume langabetuak edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden taldeetako pertsonak.

14.- *Kontratuaren aldaketa: Bai. Aurreikusi da, kontrolatzaile berri bat kontratatzea Udalak zelata areagotzea beharrezkoa dela kontsideratzen badu."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Beasaingo EH Bilduko ordezkariak esan du abstenitu egingo dela Plenoan tratatuko den TAOko ordenantzarekiko ere jarrera berdina azalduko dutelako. Beste guztiek adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, hasieran aipatutako baldintzarekin, hau da, TAOko ordenantzaren aldaketa Plenoan onartzearen baitan, gehiengo osoarekin onartu da lizitazio espedientea eta zerbitzua kontratatzeko deialdi publikoa egitea.

- KALE ASFALTAKETA, 2024KO KANPAINA. 2024ZEBO0045

Ezagutzera eman da Lurralde Batzordearen proposamena, 2024ko kale asfaltaketa obrak kontratatzeko lizitazioa onartzeari buruzkoa.

“1.- *Prozedura: irekia. Lizitazio elektronikoa.*

2.- *Izapidetzea: arrunta*

3.- *Lizitazio prezioa: 89.866,99 € BEZ gabe*

4.- *Egikaritze epea: 2024ko abuztuaren 1etik 9ra arte, baina zuinketa aktaren egiaztapena: 2024ko uztailaren 29an.*

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

- *Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 134.800,48 € gutxienez.*

6.- *Kaudimen teknikoa:*

- a) *Azken bost urteetan egindako obren zerrenda, egoki egin direnaren ziurtagiriarekin batera. Ziurtagiri horietan azalduko da obren zenbatekoa eta obra horiek noiz eta non egin diren. Gainera, zehaztuko da lanbidearen arauen arabera egin diren eta behar bezala bukatu diren. Behar izanez gero, ziurtagiri horiek zuzenean emango dizkio eskumena daukan agintaritzak kontratazio organoari. Lehia-maila egokia ziurtatzeko ezinbestekoa bada, botere esleitzailerek adieraz dezakete azken bost urteetatik atzera egindako obren frogagiriak kontuan hartuko dituztela.*
- b) *Obrak gauzatzeko zer makina, material eta ekipo tekniko jarriko diren zehazten duen adierazpena. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatuz gero, adierazpenari dagozkion ziurtagiriak.*

7.- *Aurkezteko epea, ordua eta lekua: Hogeita sei egun naturalak, 23,55arte. Kontrataziorako plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.*

8.- *Adjudikazio irizpideak:*

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (100 puntu):

Eskaintza ekonomikoa: 80 puntu.

Puntuazioa ezartzeko, honela banatuko da:

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beharpen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beharpenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

$B_{max} \leq 50\% \ggg P = 200 \times B$ $B_{max} > 50\% \ggg P = 100 \times B / B_{max}$

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baja = 1 - (Eskaintako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua).

Bmax: Onartutako gehieneko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

Agirian ezarritako berme epea baino luzeagoa eskaintzea: 20 puntu

Gehitzen den urte bakoitzeko, 5 puntu emango dira.

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profileen argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*

11.- *Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:*

Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen ordezkariak ez orekatua balu langileen artean, kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.

12.- *Asfaltatuko diren kaleak:*

- *Joan XXIII kalea eta Arantzazu kalea*
- *Erauskin kalea Ikusi*
- *Garmendia Otaola kalea eta Oriamendi kalea*
- *Nekolalde kalea*
- *Foru kalea*

Garajeetako sarbide batzuk ere egokitu egiten dira

Baldintza pleguan jasota dauden planoetan ikus daitezke nondik norakoak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa eginda, aho batez onartu da lizitazio espedientea eta aipatutako obrak kontratatzeko deialdi publikoa egitea.

- BEASAIN - ORMAIZTEGI BIDEGORRIAN LED KALEARGIAK HORNITU ETA MUNTATZEKO ESLEIPENA. 2024PROB0001

Ezagutzera eman da aipatutako zerbitzua esleitzeko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“1.- 2024-04-15eko bileraren jarraipen gisa, zeinean automatikoki baloratu ezin diren esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazio-txostena ezagutzera eman baitzen, Kontratazio Mahaiak aintzakotzat hartu eta onartu egin zuen

2.- 2024-04-15. Ekintza publikoan C artxibo elektronikoa irekitzen da (automatikoki baloratzen diren irizpideak, guztira 60 puntuekin):

- *Eskaintza ekonomikoa (2. Eranskina) 50 puntu.*
- *Berme epea handitzea (2. Eranskina) 10 puntu.*

Lizitazio prezioa: 144.619,24 € + 30.370,04 € = 174.989,28 €

Egikaritze epea: 12 aste zuinketa aktaren egiaztepena sinatzen denetik.

3.- C artxibo elektronikoa ireki ondoren, enpresa lizitatuzaileek honako hau eskaini dute:

Lizitatuzaileak Licitadoras	Eskaintza ekonomikoa Oferta económica	Bermea guztira Garantía en total
LOYOLA NORTE, SA.	127.029,86	10
INELCO 2001, S.L.	121.151,86	10

Horietako bakoitzak guztira lortutako puntuazioa honako hau da:

Lizitatuzaileak Licitadoras	Memoria	Prezioa precio	Berme epea handitzea Ampliación plazo de garantía	GUZTIRA / TOTAL
LOYOLA NORTE, SA.	37	12,16	10,00	59,16
INELCO 2001, S.L.	38	16,23	10,00	64,23

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaia kontratazio organoari (Gobernu Batzordea) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: INELCO 2001, S.L. enpresari ondorengo esleitzea: Beasain - Ormaiztegi bidegorrian led kaleargiak hornitu eta muntatzeko kontratazioa.

Bigarren. Esleipena baldintza-pleguren (administratiboa eta teknikoa), eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Hirugarren. Esleipen prezioa: $121.151,86 + 25.441,89 = 146.593,75 \text{ €}$.

Lauugarren. Egitaritze epea: 12 ASTE zuinketa aktaren egiaztapena sinatzen denetik.

Bosgarren. Berme epea: 10 urte.

Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Lurralde arloko koordinatzailea izango da.

Zazpigarren. Kontratistaren aldetik obraren arduraduna, Iker Gilsanz López jauna izango da.

Zortzigarren. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

1. 6.051,50 €ko behin betiko fidantza.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.

Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru poliza, gutxienez a 600.000,00 €koa.

Bederatzigarrena. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena emango zaio, eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ezagutzera eman da Beasaingo Udalak, lapurretixeraino egingo duela argiztapena eta Ormaiztegiko Udalak “*Hierrros Mavi*” arte duela eginda. Beraz, empresa honen paretik Lapurretixerainoko zatia geratuko litzateke egiteko.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da Kontratazio Mahaiaren proposamena.

b.- IGARTZA OLETAKO LURRAZPIKO GARAJE-PLAZAK: BALORATZEKO IRIZPIDEAK.
2024HIBO0045

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko proposamena, aipatutako garaje-plazak eskualdatu nahi direnean baloratzeko irizpidea finkatzeari buruzkoa:

“Prezioa zehazteko irizpidea

75 urteko iraupena duen jabari publikoko lurzoru baten erabilera pribatiboko administrazio-emakida denez, honakoak aintzat hartu beharko dira:

- Balorazioak ez du kontuan hartuko lurzoruaren balioa (titularra Udala da).
- Emakida aldi baterakoa da, eta, beraz, balio-galeraren koefizientea aplikatu beharko du igarotako urteen arabera (balorazioa zero izango da indarraldia amaitu eta jabetza Udalarit itzultzen zaionean).

Eraikinak balio-galera fisikoa jasaten du antzinatasunagatik. Eta horrek balioan eragina du.

Orain arte, garaje-plazak baloratzeko, erosi zirenean ordaindutako prezioa hartu da erreferentziazat, erosketaren eta balorazioaren unearen arteko denbora-tarteari dagokion KPIa gehituta.

Erabilitako metodoak ez zuen lurzoruaren balioa barne hartzen, eta hori zuzena da. Hala ere, metodo horrek berak ere ez zuen kontuan hartzen emakidaren balio-galera. Denboraldi izaera hori edukitzea, nahiz higiezinaren antzinatasuna, kontuan hartu beharrekoak dira.

2022ko ekainaren 30eko Aginduak, III. eranskinean, azalera-eskubideko babes publikoko etxebizitzaren eta eranskinen eskualdatzeen prezioen balorazioari aplikatu beharreko ehunekoen taula bat jasotzen du, erabilera-urteen eta eskubide horren gainerako urteen arabera (ECO/805/2003 Agindua erreferentziazat hartuta kalkulaturik). Beraz, balorazioak higiezinaren antzinatasuna eta eskubidearen aldi baterako izaera hartzen ditu kontuan.

2022ko ekainaren 30eko Aginduaren balorazio-objektuen eta txosten honen xede den emakidaren (jabari publikoko lurzoria, irabazi-asmorik edo interes espekulatiborik eza, administrazioaren kontrola...) arteko antzekotasuna kontuan hartuta, egokitzen da jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiborako administrazio-emakidan, 75 urteko iraupenarekin (1990-06-12ko obra berriaren aitorpen eskrituratik kontatzen hasita), dauden garaje-plazak baloratzeko **irizpidea** honako hau ezartzea:

Erositako unean ordaindutako prezioari, Euskal Autonomia Erkidegoko KPIa gehituta (eskuratu zenetik balorazio-egunera arte), aipatutako Aginduaren III. eranskineko taulan ezarritako ehunekoa aplikatuko zaio, emakidari gelditzen zaizkion urteei dagokiona.

Kontuan izan behar da bi garaje mota daudela, hots:

<u>Bi garaje mota daude</u>	<u>Esleitu zirenean ordaintutako prezioa</u>
1.- Garajea + eranskina (trastelekua)	1.510.000 pta = 9.075,28 €
2.- Garajea	1.463.240 pta = 8.794,25 €

Adibide gisa, 2. motako garaje-plazaren balioa, 2024ko otsaila arte, ondorengoa izango litzateke:

- Erosteke unean ordaindutako prezioa: 8.794,25 € (1.463.240 pta).
- KPlaren aldaketa (1990eko ekaina-2024ko otsaila): %159,8
- 2022ko ekainaren 30eko Aginduaren III. eranskineko taularen ehunekoak: % 65,25

Hau da:

$8.794,25 \text{ €} \times 2,598 \times 0,6525: 14.908,00 \text{ €}$

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, onartu egin da proposamena.

c.- Obra ziurtagiriak:

- LOINAZ FUTBOL ZELAIAREN TEILATUAN PLAKA FOTOVOLTAIKOAK JARTZEARI BURUZKO 1. ZIURTAGIRIA. 2023PROB0009

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, “*Loiaz futbol zelaiaren teilatuan plaka fotovoltaikoak jartzeari buruzko*” 1. obra-ziurtagiria, 73.416,52 €koa (BEZ barne)”

- HILERRIKO NITXOAK BERRITZEARI BURUZKO 3. ZIURTAGIRIA. 2023PROB0007

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu zuen, “*Beasaingo hilerriko nitxoak berritzeari buruzko obren*” 3. obra-ziurtagiria, 26.089,52 €koa (BEZ barne)”

- BEASAINGO IGARTZA JAUREGIRAKO IKUS-ENTZUN EKIPOAK HORNITU ETA INSTALATZEKO LANEN LIKIDAZIOA, EUROPAR BATASUNAK FINANTZIATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN BARRUAN - NEXT GENERATION EU. 2023PROB0010

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu zuen, “*Beasaingo Igartza Jauregirako ikus-entzun ekipoak hornitu eta instalatzeko lanen likidazioa, Europar Batasunak finantziatutako berreskuratze, eraldatze eta erresilientzia-planaren barruan - Next Generation E*” 35.120,44 €koa (BEZ barne)”

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko seiak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.